



ARAUDIA

ERRUGBIA 2026

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zuzendaritzak Errugbi Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu Arrasaten, Mojategi Kiroldegian, 2026ko maiatzaren 30an. Hona hemen arautegia:

1. PARTE HARTZAILEAK

2012 eta 2013 urteetan jaiotako jokalariaik.

Guztira 28 jokalarik parte hartu dezakete: 15 titularrek eta 13 ordezkok. Aldaketak libreak izango dira, baina beti ere erdiko marratik eta jokoetarako osatuko den mahairako onespenearekin.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

2. JOKO ARAUAK

Jokalekuaren neurri maximoak 100x50 metrokoak izango dira.
4 zenbakikoa izango da baloia.

15 minutuko 2 alditan jokatuko da partida, eta 10 minutuko atsedenaldira izango da bien arten.

Entsegu bakoitzeko 5 puntu lortuko dute, transformazioak 2 (beti zutabeen parean jaurtiko dira) eta zigor-ostiko eta drop-ek 3. Berdinketa egonez gero honako hauen arabera erabakiko da zein den irabazlea: lehenik, lortutako entsegu-kopuruaren arabera; bigarrenik, zigor-ostiko kopuruaren arabera; eta hirugarrenik, 22 metroko marratik kanpo lortutako transformazio-kopuruaren arabera.

Partiden ordutegia:

10:30	ARABA - BIZKAIA
11:15	GIPUZKOA - ARABA
12:00	BIZKAIA - GIPUZKOA



Jokalarien eskubide eta betebeharrak:

- Honako eskubide hauek dituzte jokalariek:
 - Baloia hartzekoa
 - Baloiarekin korrika egitekoa
 - Baloia atzerantz pasatzekoa
 - Baloia duen aurkako jokalaria plakatzekoa
 - Baloia ostikatzea
- Honako betebeharrak hauek dituzte jokalariek:
 - Arauak, epailea eta jokalaria errespetatzekoa
 - Plakaketa egiten badiote baloia ahalik eta azkarren askatzekoa
 - Zutik jokatuzkoa, inoiz ez lurrean
 - Helduz plakatzekoa, kamisetatik tiratu eta aurkaria bota gabe
 - Baloia jokatzen duen taldekidearen atzetik egotekoa

Baloia jokoan jartzea

- Erdiko sakea. Aldi bakoitzaren hasieran edo entsegu baten ondoren
 - Non: Zelai erdiko marran.
 - Nola:
 - Drop bidez, gutxienez 10 metro aurrera egin behar du baloia.
 - Bi kasuetan 10 metrora egon behar da beste taldea.
- Hogeita biko sakea. Baloi hilaren marratik irteten denean baloia.
 - Non: 22 metroko marratik.
 - Nola: Drop bidez, 22 metroko marratik aurrera egin behar du baloia
- Melea. Aurreratua edo baloi joka ezina denean
 - Non: falta egin den lekuan, markaketa-marratik eta alboko marratik gutxienez 5 metrora
 - Nola:
 - Melean bi taldeak lehiatzen dira.
 - 8 jokalariek.
 - Gainontzeko jokalaria melean atzean 5 metrora, mele erdikoa ezik.
 - Ezin da 1,5eko baino gehiagoko bultzadarik egin (baloia sartzen den unean baino ez da bultzadarik onartuko, eta bi taldeetako batek baloia irabazten duen arte, une horretan, epaileak STOP esango du).



- Mele erdikoak baloiarekin korrika egin edo baloia pasa dezake.
 - Beste mele erdikoa baloia jokoan jarri den marran geratu beharko da (mele tunelean), meleari itsatsia, mele atzera joan edo bertan geratu, jokoz kanpoko marra zeharkatu gabe melean ez dauden jokarientzat.
- Albokoa. Baloia alboko marratik irteten denean.
 - Non: falta egin den lekuan, markaketa-marratik eta alboko marratik gutxienez 5 metrora.
 - Nola:
 - Honako hauek parte hartuko dute: jaurtitzailak, zazpi jokalaria (hiru jokalaria gutxienez) eta meleko erdilari batek. Errenkadako jokalarien gainera bota behar da baloia.
 - Ezin da altxatu.
 - 10 metrora egon behar dira gainontzeko jokalariaik.
 - Ostikoa. Beste arau-hauste batzuk egiterakoan.
 - Non: falta egin den lekuan, markaketa-marratik eta alboko marratik gutxienez 5 metrora
 - Nola:
 - Eskura jokatuz
 - Ostiko baten bitartez
 - 10 metrora egon behar du beste taldeak
 - Kanporaketak:
 - Aldi baterakoa: 2 minutu (jokalaria eta hezitzaileari azaldu arrazoia)
 - Aldi baterako kanporaketa indarrean dagoen bitartean kanporaturikoaren ordezkari bat sartuko da
 - Jokalaria zigortuko da, eta ez taldea
 - Behin betikoa: aparteko kasuetan bakarrik (jokalaria eta hezitzaileari azaldu arrazoia)
 - Beste jokalaria bat sartu daiteke hori ordezkatzeko
 - Jokalaria zigortuko da, eta ez taldea

Segurtasunagatik aho-babeslearekin eta takodun botekin jokatu behar dute jokalariek (galarazita dago metalezko tako aldagarriak dituzten botak erabiltzea).

3. EZBEHARREN AURREAN.



Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeron nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

4. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Euskadiko Rugby Federazioaren araudiak xedatzen duenari (IRB Sub19).

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeron, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.